

FEDERAZIO LIZENTZIEN ARAUDIA

- 1. artikulua.-** Autonomi mailako lehiaketetan parte hartzeko, Euskadiko Taekwondo Federazioak (ETF) emandako lizentzia eduki beharko da, eta txapelketa bakoitzaren araudia bete beharko da (gutxieneko maila izan, eta gerriko bakoitzean eskatzen den gutxieneko denbora bete; jatorrizko lizentziak aurkeztu beharko dira, eta Federazioak ezartzen duen praktikaldia betetzen dela egiaztatu beharko da, mailen agiria eman zaionetik aurrera).
- 2. artikulua.-** Federazio lizentzia norberarena da eta besterenezina. Haren jabeari Euskadiko Taekwondo Federazioaren kide izaera ematen dio, eta berak antolaturiko lehiaketa ofizialetan eta jardueretan parte hartzeko eskubidea, bai eta (ETF) ren Estatutuetan eta gainerako araudietan jasotzen diren beste eskubide batzuk ere.
- 3. artikulua.-** Lizentzia eskaera egiteak berekin dakar (ETF) ren araudi teknikoak eta ekonomikoak zein lehiaketa eta diziplina araudiak onartzea.
- 4. artikulua.-** Lizentziak emateko, Euskadiko Kirolaren Legeak (14/1998 Legea, ekainaren 11koa) eta Euskal Herriko Kirol Federazioen Dekretuak (16/2006 Dekretua, urtarrilaren 31koa) ezarritakoa aintzat hartuko da.
- 5. artikulua.-** Taekwondo euskal federazioak igortzen dituen lizentziak euskal federazioaren lehiaketa ofizialetan parte hartzeko bere titularra eta territorial egokia prestatzen ditu. Lizentziako titularrak, aukeran, izango ditu bere prestaketa Federazio espainiarrari eskatuz eta kuota egokia lehiaketetan parte hartzearen kasuan ordainduz goiko eremuko lehiaketa ofizialetan parte hartzearen posibilitatea eta estatuko eremuko jarduerak.
- 6. artikulua.-** Euskadiko Federazioak izapidetuko du lizentzia eta Euskadiko Federazioak emango du.Lurralde federazioek Euskadiko Federazioari bidali beharko diote behar den dokumentazio guztia, gehienez 5 eguneko epean, eskatzaileak lizentzia egiteko edo berritzeko eskaera egiten duenetik kontatzen hasita.

Euskadiko Federazioak lizentzia emango edo berrituko du, eskaera jasotzen duenetik 15 eguneko epean, hartarako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren.
Euskadiko Taekwondo Federazioak ematen dituen lizentziak Espainiako Taekwondo Federazioak onartuak dira.
- 7. artikulua.-** (ETF) ezingo die lizentziarik izapidetu (ETF) ren Diziplina Batzordeak lizentzia kendu dien pertsoneri.
- 8. artikulua.-** (ETF) lurralde federazioei banatuko die hauek izapidetzen duten lizentzia bakoitzaren urteko zenbateko garbiaren % 50a. Zenbateko garbi hori ateratzeko, estatuko edo nazioarteko lehiaketetan parte hartzeko nahitaezkoa den kirol aseguruaren gastuak kendu behar zaizkio zenbateko gordinari.
Urtero, (ETF) ren Batzar Nagusian erabakiko da federazio lizentziaren prezioa, eta lurralde federazioei jakinaraziko zaie bakoitzari zer portentzaje dagokion lizentzia bakoitzaren truke.
- 9. Artikulua.-** (ETF) onartuko du lizentzien formatua eta edukia, eta Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira nahitaez.
- 10. artikulua.-** Hauek azaldu beharko dira lizentzian:
 - a) ETFren logotipoa, goian, ezkerrean.
 - b) Lizentzia zenbakia.
 - c) Lizentziaren iraupena.
 - d) Titularraren izen-deiturak.
 - e) Titularraren jaiotza data.
 - f) Kirol diziplina edo diziplinak.



- g) Titularraren kluba.
- h) Zenbatekoa guztira.
- i) (ETF) ren lehendakariaren eta idazkariaren sinadura.

11. artikulua.- Federazio lizentzia urtekoa izango da, tramitatzen den unetik kontatzen hasita.

12. artikulua.- Titular bakoitzak federazio lizentzia bakarra eduki ahal izango du kategoriako.

13. artikulua.- Urte berean lurralde federazio batetik bestera aldatzeko, titularrak bi federazioen baimena izan beharko du.
Federazioko lizentzia ezin da beste lurralde edo autonomia baten bidez lortu, ohiko bizilekutik kanpo, bi federazioen baimenik gabe.

14. artikulua.- Federazio lizentziaren titularra berak adierazi duen klubarekin eta lurralde federazioarekin ariko da denboraldi horretan, ezingo du beste inor ordezkatu inolako lehiaketetan.
Urte berean klub batetik bestera aldatzeko, titularrak bi klub baimena izan beharko du. Liskarrik sortuko balitz, (ETF) k egingo luke arbitraje lana.

15. artikulua.- Lizentziaren indarraldian, behin bakarrik aldatu ahal izango da klub batetik bestera.

16. artikulua.- Federazio lizentzietan agertzen diren datu pertsonalak, datuak babesteko legeriaren arabera tratatuko dira.

17. artikulua.- Araudi hau interpretatzean sor daitekeen edozein auzi, (ETF) k izendaturiko Arbitraje Batzordeak ebatzi beharko du.

Azken xedapena: Araudi hau indarrean sartuko da behin (ETF) ren Batzar Nagusiak eta Kirol Zuzendaritzak onartzen dutenean, eta dagokion erregistroan behar bezala erregistratzen denean.

Bilbo, 2018ko otsailaren 10a.

Lehendakaria



Idazkaria

Fdo.: José Antonio Valín Pérez

Io.: Alberto Ibáñez Egia

